

20/06/2016

KIROLAK

REPORTAGE

BAIONA FC TALDEAK HAIZE FRESKOA EKARRI DU LAPURDIKO HIRIBURURA

Baiona FC taldea iritsi da, eta geratzeko etorri da. Lapurdiko hiriburuan lehen ere bi klub handi daude, Aviron eta Croises, baina helburu erabat ezberdina dakar klub berri honek, eta bi handiek betetzen ez duten lekua betetzeko prest dago, aukera berri bat sortzeko.

JON LEUNDA

PRINT SEND



Orain dela urtebete sortu zen Baiona FC, baina denboraldi honetan ezin izan du partida ofizialik jokatu; lagunarteko batzuetan aritu ahal izan da. Hurrengo denboraldirako, bai, dena lotuta dute eta lehiaketa ofizialetan jokatzeko hasiko dira. Mailarik apalenetik hasi beharko dute, baina emeki-emeki gora egin nahi dute.

«Orain dela urtebete lanean hasi eta kluba sortu genuen. Gure asmoa amaitu den denboraldi honetan lehiatzea zen, baina udaletxera jokatzeko eta entrenatzeko zelai bat uzteko eskatzera joan eta ezekoa jaso genuen. Denak beteta zeudela eta ezinezkoa zela. Hori dela-eta, aurreko lagunarteko batzuk bakarrik jokatu ahal izan ditugu. Udalak, ordea, hurrengo urterako zelaia uzteko moduan dagoela esan digu, bai jokatzeko, baita entrenatzeko ere, eta, hortaz, lehiatzen hasiko gara», azaldu du Xabier Becamel Baiona FC taldeko ordezkariek.

Azkeneko mailatik hasi beharko dute, baina hori bazekiten; apurka-apurka egin nahi dute aurrera. «Oraingo seniorren talde batekin abiatuko gara. Beste klub batzuetan ari ginen jendea gara, eta hau sortu nahi izan dugu. Gauzak ongi badoaz, beste mailak sartzen joango gara», dio Xabierrek. Izan ere, filosofia erabat ezberdina ekarri dute. «Gaur egun klub taldeak negozio iturri bihurtu dira gutxi batzuentzat, eta guk ez dugu hori nahi. Bazkideen taldea izatea nahi dugu, haiek erabaki behar dute zer egin eta noraino joan, eta ez diruarekin datorren edonorri utzi. Hori ez dugu egingo, klubeko bazkideena da taldea, eta horrela izan behar du gero ere», argitu du Becamelek.

CINE

▶ 'Ama Lur', este domingo (21.00) en NAIZ



Este domingo recuperamos la mítica película 'Ama Lur', film dirigido por Nestor Basterretxea y Fernando Larruqert, estrenada en 1968 y restaurada por GARA en 2007. El domingo a partir de las 21.00 en NAIZ.



PDF-EPUB ↓

SEKZIOAK

ORRIALDEAK

ARTIKULUAK

HEMEROTEKA

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

ADVERTISEMENT

Badirudi, gainera, euren proiektua gustura hartu dutela Lapurdiko hiriburuan, jendeak erantzun ona eman baitio. «Urte bat bakarrik daramagu, eta oraindik ez gara lehiatzen hasi. Kluba osatzen dugun 25 jokalariek bakarrik ginen hasieran bazkide, eta une honetan 100dik gora gara eta eskari gehiago ditugu. Nik uste dut jendeari proiektua gustatu zaiola, eta aurrera egingo dugula», esan du Xabierrek.

Oraingoan, gainera, aurrekontua osatzeko ere ez omen dute arazorik izango. «Hasierako kezketako bat da. Dena behar genuen, jantziak, baloiak, epaileak ordaindu, bidaia, baina lortu dugu. Esan beharrik ere ez dago jokalariek erabat amateurrek garela; ez dago besterik. Oraingoan, babesle pare bat lortu dugu, eta horiek jantziak eta baloiak eman dizkigute. Gero, lana egin behar dugu, eta joan den asteburuan festa bat antolatu genuen; urtean zehar beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu, eta bazkideen dirua ere hor dago. Oraingoan osatzeko moduan gara, eta gerora ere hala izatea espero dugu», azaldu Xabier Becamelek.

Harremanik ez

Oraingoan, Avironekin eta Croisesekin ez dutela harremanik ere baieztatu zuen Becamelek. «Badakite bagaudela, badakite etorri garela, eta lehiatzen hastear gaudela, baina oraingoan bi talde horietako inor ez da guregana gerturatu, eta gu ere ez gara haiengana gerturatu», esan du Xabierrek.

Hori bai, Croises eta Aviron bezalaxe, Baiona FC taldearen koloreak ere zuria eta urdina izango dira. Halere, hirurek urdin ezberdina dute eta kamisetek ere ez daukate zerikusirik, hirurak oso ezberdinak baitira. Oraingoan, klub berria abiatu besterik ez da egin, eta urte askorako bizia izateko itxaropenez, gainera.

Eibarrek hartutako bidea da lapurtarren eredia

Eibar taldea da Baiona FC taldearen eredia, eta gipuzkoarren bideari jarraitu nahiko lioke. «Eibarrek erakutsi du zaleen babesarekin gauza asko egin daitezkeela, eta begira non dagoen. Kapital gehiketa behar izan dutenean errazena kanpotik datorren dirudun bati ematea zen, baina jendearen diruarekin egin du aurrera, jende askorenarekin, eta hori da guk nahi duguna, horrek izan behar du futbolaren eredia», dio Xabierrek.

Eibarrekin liluratuta daude Baionakoak, eta haren ereduari jarraitzeaz gain, gipuzkoarren jarraitzaile sutsu bihurtu dira eta Eibarren peña bat ere sortu dute. «Uste dugu Eibar izan behar dela euskal futbolaren erreferentzia nagusia, euren lan egiteko era, apaltasunetik, eta itsutu gabe, gauza handiak eginez. Horregatik sortu dugu peña, eta lporuan ere izaten gara», esan du Becamelek. J.L.